

Nafar **karia**

Nafarrok gehigarria / Ostirala, 1992ko uztailak 31 / II. urtea / 35. zenbakia

Isiltasun elektrikoa

Metropoli forala



FELIPE RIUS

Disko zaharrak jartzten ditut gauerdian, hirurogei eta hirurogeita hamarretako musika, eta nire buruari galdetzen diot non ote dauden ahots hoiek, kitarra elektrikoa jartzten zuten ileluzeak. Errepidean gelditu dira batzuk —duela aste batzuk ETB-k 'The Band' eman zuen eta han argi zioten zergatik erretiratzeko ziren, errepideari diote beldurra, ez bakarrik bide fisikoari, galipotari, baizik eta karreterak dakartzan gauza guztiei—; beste batzuk, berriz, guraso burges guztiz 'normalak' izanen dira eta hautsa kendu ondoren harro jarriko dizkiete diskak ilobei —Mike Jagger-ek hemendik gutxira— eta goiz oheratuko dira biharamunean lorategia ureztatu behar dutelako.

Rock and rollean zahartzea zaila dela uste izan dugu beti, baina kirolariak, toreroak eta mitoak izan diren pertsonaia askok ezin izan dute beren itzaltze geldoa jasan. Beharbada batzuk garaiz bota zuten teloia eta batek baino gehiagok azken momentua beranduegi zetorrela pentsatuko zuen. Zeinek daki. Paradoja badi-rudi ere, bizi osoa sufri-menduari kantatzen pasatu duten bluesmanak dira hobe-kien zahartu direnak, beren oihu latzek nolabaiteko katarsi bat eragin bali-te bezala.

• Musika kendu gabe, te-
lebista piztu dut eta kirolari gazteen giharrek bete dute pantaila. Zerura iristeko podium bat besterik ez dute behar. Ez dakit non egongo diren atleta hoiek hogeitabar-ru, ez dakit neu non izango naizen, baina hodeietaraino iristen den podium batetik infernura erortzeak gogorra izan behar du.



Elizondoko Abesbatzak berrogeitamar urte bete ditu aurten. 50ko hamarkadan Europa osoa zeharkatu eta Llangolleneko (Gales) jaialdi famatua irabazi zuen taldeak galdu egin du azken urteotan lehengo fama eta maila, baina Elizondoko eta Baztan osoan, oraindik me-rezimendu osoko fama eta onespena dauka. Iruñeko Orfeo-ak aurten ere ospatzen duen omenaldiaren itzalpean baina, ez dute elizondak-
rek data hau ezer egin gabe pasatzen utzi nahi izan, eta liburu bat kaleratu du-
te, baztandar askoren

dirulaguntzari esker. Liburua, 'El silencio electrico' ('Isiltasun elektrikoa') izena daramana, Carmen Garcia Romero kazetari bilbotarrak egin du, eta bertan biltzen da ez bakarrik taldearen historia eta data azpimarragarrienak, baizik eta barruko historia ere, pertsonaien gorabeherak. «Liburu koral bat egin nahi izan dut —azaltzen du egi-leak—, eta konturatu naiz talde honetan era berezi batean bizi direla musika, benetako beharra dutela abesteko».


Barnean

PROSTITUZIOA



HIESAk ez ditu,
oraindik, gogor
jo iruindarrak/M-V

NUP



Koldo Asiron
Euskara Atalburu
berria/M

Gure aukerak

Festatik lasaitasunera

ERAKUSKETAK



Pelaio Ortega pintatzailearen erakusketa abuztuaren lehen paratuko dute Iruñeko Gotorlekuaren Mixtoen pabilioian. Erakusketa Nafarroako Jaialdien egitarauaren barne dago, pintatzaileak joan den urteko Jaialdien Pintura saria eskuratu bait zuen.

'Metropolis' sei aintzindaritzaren —urte' izeneko erakusketa, abuztuaren 3tik 7ra bitarte ikusi ahal izango da Nafarroako Museoan. Erakusketa hau Nafarroako Jaialdien barne dago, eta I. Bideo Erakusketaren zati bat da. Filme interesgarrien inguruko muestra hau goizeko hamarretatik aurrera ikusgai izango da.

Lurdes Gorritxo pintatzailearen lanak ikusgai daude Iruñeko Aurrezki Munizipalak Rodezno Kontearen kalean daukan aretoan. Areto berdinean, Luziano Martinezek Txinatar tintaren teknika erabiliz egin dituen marrazkiak ikusteko aukera ere izango dute bertaratutakoek.


Jose Javier Irisarriren erakusketa Langile Aurrezki Kutxaren Sarasate pasealekuko aretoan ikusgai dago. Erakusketa honetan margolariak zezenaren munduaren inguruan pintatutako obra nagusienak agertzen dira.

Andres Larraga joan den mendeko artistaren obren erakusketa azken egun hauetan amaituko da.

Zarrakazteluko festak asteburu honetan bertan hasiko dira, eta ez alferrik dira famatuak Nafarroa osoan, inguruetan aritzeko aukera eskeini nahi dizuegu txoko honetan.

Bihar bertan, abuztuaren bata, Erraldoiaren eguna izango da, eta zazpi konpartsetako giganteen erakusketa izanen da ikusgai arratsaldeko bost t'erdietik aurrera. Ondoren exhibizioa egingen da plazan, eta igandean Nafarroaren eguna ospatuko dute zarrakazteluarrek. Goizeko hamarretatik Alduides-Urepelekin urteroko adiskidetasuna izanen da, eta ordubatean sei merinaldeko ordezkarien dantzariak arituko dira plazan.

Baina festaren giroa dastatzeaz gain zerbait desberdina egiteko gogoia izanez gero, ondo-ondoan duzu Olivako Monastegia, lasaia baino lasaiagoa. 1149an sortua, izugarritzko garrantzia izan zuen Nafarroaren historia erlijiosoa ez ezik, baina politikan ere. Bertako ordezkariak



riek botere handia izan zute, baina Mendizabalen lur desjabetzeak hondora eraman zuen. 1927an berreskuratu zuten fraideek, eta egun astialdia lasai igar

rotzeko toki apropos bihurtu da askorendako. Ikustekoa egunean zehar burutzen diren elizkizunak, fraideen abotsak entzun ahal izateko sikiera.

J. M. Imirrizaldu artistaren lanak Lacava kafetegian ikusgai izango dira abuztuak 9 arte.

ANTZERKIA



'Enesimo viaje a Eldorado' Guirigai taldeak Altsasuko Foru enparantzan antzeztuko du abuztuaren 3an, gaueko 10etan.

'Ur' taldeak William Shakes-

pearek idatzitako 'Uda—gau bateko amatsa' obra antzeztuko du abuztuaren 5ean, gaueko 10etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

DANTZA



'Algien ha sido herido' saioa eskeiniko du '10&10 DANZA' taldeak abuztuaren 2an, arratsaldeko 8etan Gaiarre antzokian.

ZINEMA



'Bideo aukeran' zinema proiektzioen saioa abuztuaren 3tik 7ra bitartean gauzatuko da Nafarroako Museoaren Areto

Nagusian. 'Bideo aukeran' ziklo honek berritasuna dakar, ikusleak bideogintzaren inguruan egindako lau filmeen artean bat aukeratu bait dezake. Filmeak honakoak dira: 'Espainiako bideogintza 1986tik 1991ra', 'Iñigo Salaberriari buruzko erretrospekzio berezia', 'Atzerriko obra autatuak' eta 'Infografiaren inguruko sail bereziak'. Proiektzio hauen ordutegia: goizez, 11etatik 14tara, eta arratsaldez 18etatik 20etara izango da.

MUSIKA



'Conjunto iberico de violonchelos' zortzikoteak ganabar musikako kontzertu bat eskeiniko du abuztuaren 4an, arratsaldeko zortzi t'erdietan, Altsasuko Igokunde Ama Birjinaren parrokan. Musika emanaldi hau Nafarroako Jaialdien barne dago.

'Tractores' taldeak musika saio bat eskeiniko du Altsasuko gaztetxean Abuztuaren 31an, gaueko bederatzietan.

'Tapia eta Leturia' trikitilariak Berako enparantzan joko dute uztaileak 31, gaueko 11etan.

IKUSKIZUNAK



'Golden Apple Quartet' taldeak 'Beltzek eta guk bakarrik dakigun bezala, ez ala?' lana ikuskizuna burutuko dute abuztuaren 6an, gaueko 10etan Altsasuko Foruen plazan.

ERRAN DUTE

ASTEKO PERTSONAIK

Nire semea txirrrindulari ona dela uste baduzue, jakin ezazue nekazari bikaina dela.

Miguel Indurain
Miguel Indurainen aita

«Riau-Riauaren epaiari dagokionez, Alfredo Jaimek adore eta duintasun falta erakutsi du».

Juan Manuel Fernandez
Iruñeko Magistratua
«Bezeroak harritzen ziren emakume bat autobusa gidatzen ikustean».

Teresa Malo
Autobus gidaria
«Batzuek ondo pasatzen duten bitartean, guk otoitz egiten dugu jaiak lasaitasun osoan burutzeko».

Lizarrako klausurazko mojak

Ruben Beloki



Pilotaria

Burlatako mutikoteak jipoi bederrak eman ditu Olinpiadetako estraineko partiduetan. Igandean 22-0 zapaldu zuen Texcalpa mexicarra, eta partidua hasi orduko amaitu zen, hamabi minutu eskasean. Astelehenean bigarren partidua jokatu zuen, eta bertan ere ia izerdi botatzen hasiteko astia ez zuen izan Belokik, 22-1 irabazi bait zion Bernard Mugida Frantziako taldearen ordezkariari. Erdifinalarako partiduan atsedena hartu zuen burlatarrak, baina aisa baino aisago mugitzen ari da Barcelonako frontoietan. Bera bait da nagusia pilotan.

Alfredo Jaime



Iruñeko alkatea

Zarautzen uda guztietan egiten ohi dituen oporraldiak aparte utzita, adierazpen nahikoa polemikoak egin zituen pasa den asteburuan Alfredo Jaimek. Iazko Riau-Riauaren inguruan izandako istiluak argitzeko egin den auziaren epaileak ez du delitu garrantzitsurik ikusi aurkeztutako frogetan, eta auzia artxibatzea deliberatu zuen. Horrek udal agintarien haserre piztu du, eta Jaimek esan zuenez, oso larria izan zen epaileak hartutako erabakia, «gaizkileen lana babesten zuelako». Honek, era berean, haserre eta ondoeza sortu du entzutegian.

Tomas Yerro



Jaialdietako zuzendaria

Joan zen asteazkenean aurkeztu ziren ofizialki aurtengo Nafarroako Jaialdiak, eta bertako zuzendari berria. Berrikuntza handirik ez egitarauan, baina azpimarratzeko euskarazko ekitaldiek izango duten toki eskasa, Golden Appel Quartet taldeak Altsasun emango duten emanaldia baino ez. Urtetik urtera urriago, alegia. Egitarauan azpimarratzeko gutxi, akaso Amerikako aurkikuntzaren 500. urteurrena dela eta izango den Hegoamerikako partaidetza handia. Jaialdia, beti bezala, Erriberri, Iruñea, Tuter, Altsasu, Zangoza eta Lizarran ospatuko da.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratia saio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenan zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenan zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

AINHOA ARROIABE / IRUÑEA

Bihar larunbata, eguerdian Berako udaletxetik jaurtiko den suziriak jaiei hasiera emango die. Suziriak eztanda egin bezain laister, herriko ezkilak jotzen hasiko dira. Erraldoi eta buruhandiek Los Incansables txarangak lagundurik herria zeharkatuko dute eta giroa alaitzen saiatuko dira. Ohizkoa den bezala ordubietan herri bazkaria egingo da eta bertan herritar gehienek hartuko dute parte.



A stelehenean 'Gure Txokoa' taldekoek makildantza eta bordodantza dantzatzeko dituzte. Egun berean, Mañukorta eta Liza-so arituko dira.

Gure Txokoa taldekoek, bestalde, herri kirol lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa honetan, Arantza, Bera eta Lesakako taldeak aurrez aurre izango dira eta zenbait proba gainditu behar izango dute: aizkora, arpana, zakuak, korrikalariak, artoak eta sokatira alegia.

Astelehenean Doneztebe eguna ospatzeko, udal korporazioak, txistulariak, makil-dantzariak eta Berako ikurrina udaletxetik elizara abiatuko dira. Berako koroak meza nagusia

Betizuak gaiteroekin Beran

abestuko du eta ostean, Gure Txokoa taldekoek makil-dantza eta bordodantza dantzatzeko dute. Mañukorta eta Liza-so egingo duten bertso saioak ekitaldiak ofizialaren seriotasuna hautsiko du eta txarangaren doinu alaitsuei bidea emango die. Egun berezi honi amaiera emateko Kaxerna taldeak sufestak eskeiniko ditu.

UME ZEIN HELDUENTZAKO Udaletxeak haurren eta gazteen nahiak betetzeko ekintza anitz prestatu ditu. Haurrek azteazkenean arratsaldeko seietan Goloka antzerki taldeak eskeiniko duen 'Arabiar kalejiran' hartuko dute parte. Goloka taldekoek Arabiako herrialdeak gogora ekarriko diete Berako haurrei. Taldekoek

ganbeluz jantzita eta zankuetan herriko kaleak zeharkatuko dituzte eta bidean aurkitzen dituzten haurrekin jolas egingo dute. Baina Berako haurrek jolasten jarraitzeko aukera izango dute, ostegunean arratsaldeko lauretan adin guztietako umeentzako jokuak izango bait dira. Jokuen ostean askaria izango da eta bertan umeek galdutako indarrak berreskuratuko dituzte.

Gazteak zezenzaleak direnez, ia egunero betizuen aurrean korrika egingo dute Udaletxe enpa-

G azteak zezenzaleak direnez, betizuen aurrean korrika egingo dute udal enparantzan. Gaiteroen musikak entzierroak lagunduko ditu.

rantzan. Gaiteroen musikak entzierroak lagunduko ditu. Pilota partiduak ere gaiteroen musikaren laguntzarekin jokatu dira.

Pilotari dagokionez abuztuak 4, asteartean, arratsaldeko seietan partidua jokatu da Ezteaga pilotalekuan. Bigarren partiduan Alustiza eta Arretzek, Bergara II eta Errandonearen kontra jokatu dute.

Los Pamplonicas taldeak jota saio bat eskeiniko du Altzate enparantzan asteartean arratsaldeko zortzi terdietan.

Herri afaria Zubiriko jaietan

A.A. / IRUÑEA

Gaur, ostirala, arratsaldeko zortziretan hasiko dira Zubiriko jaiak. Txupinazoaren ostean koadrilak herriko afaria egiteko bilduko dira. Zubiriko jaien lehenengo eta azkenengo egunean herri afaria ospatzen da. Dena den, azkenengo egunean berritasun bat izango da, herri afari berri honetan herritar guztiek parte hartzeko aukera izango bait dute. Aurreko urteetan koadrilak kalderete lehiaketa bat antolatzen zuten eta lehiaketaren ostean afaria egiten zuten. Udaletxeak gazte guztiak eta gainontzeko herritarrek bildu nahi ditu aurtengoan, eta hau dela eta, uztailak 4, asteartean, jaiak amaitzen direnez zubiritar guztiek elkarrekin afaltzeko aukera izango dute. Afariak aukera paregabea eskainiko die herritarrei datorren urteko festetan pentsatzen hasteko, asteartean dagoeneko gertu izango bait dira datorren urtekoak.

Zubiriko herritarrek gogokoen duten ekitaldia jubilatuei egiten zaien omenaldia da. Jubilatuek jotak entzuteko aukera izango dute 'Los pamplonicas' taldeak eskainitako saioan. Omenaldi honetan sortu berria den Xabier Zubiri dantza taldeak ere parte hartuko du. Taldeko dantzariak herriko haurrak dira eta omenaldian egingo duten emanaldia lehenengo izango da.

Errazkin eta Azpirotz jaiek elkartuta

A.A. / IRUÑEA

Errazkinen abuztuaren bostean jaiak hasiko dira eta Azpirotzekin parekotasun handia dute, bi herri hauetan ohitura berdinar errepikatzen bait dira.

Azpirotzen ezkilak doinuek jaiak hasi direla iragarriko dute. Larunbatean gauzatuko da puska biltza, kalejira eta gazteak etxez etxe ibiliko dira, etxe bakoitzean piezaren bat jo eta dantza egingez.

Puska biltza Errazkinen ere egiten da baina hiru egun ezberdinetan, ostegun ostiral eta larun-

batean. Bi herri hauetako jaien hasieran herri afaria ospatzen da, eta afari ostean soinu-joleek parranda luzatzen lagunduko dute. Azpirotzen eta Errazkinen gainontzeko herrietan ez bezala, soinu-joleak dira gauean giroa alaitzen dutenak. Errazkingo jaietan Arantzako 'Modesto' ari-tuko da beti bezala.

Azpirotz eta Errazkingo jaietan bi herri hauetako gazteak aurrez aurre arituko dira pilota partidu batean. Azpirotzen gaitzen dutenek Errazkinen irabazteko aukera izango dute.



Lodosa.

'Banderita eguna' Lodosan


A.A. / IRUÑEA

Gaur eguerdian jaurtiko den txupinazoak hasiera emango die Lodosako jaiei. Egitarauari dagokionez, urtero ohizkoak izan diren ekintzak aurtan ere izango dira. Dena den, goiza ekintzez betezea izan da udal zinegotzien helburua. Hortaz, herri kirola eta dantzariak ikusgai izango dira goizero. Aspaldidanik herri kirolekiko zaletasun handia dago

Lodosan eta aurtengo saioei dagokienez aizkolariena nabarmenena izango dela espero da. Aizkolariak etzanda jarritako enborrak moztuko bait dituzte. Trontzalariak eta txinga laisterketak ere izango dira herri kirol saio hauetan.

Herri kirolaz aparte aipatu beharra dago jai hauetan egingo den ekintza berri bakarra: Gurutze Gorriaren 'banderita eguna'. Lodosako Gurutze Gorriak dirua

biltzeko asmoz egun berezi bat antolatu du udaletxearen laguntzarekin. Gurutze Gorrikoek paella erraldoi bat prestatuko dute 'banderita eguna' ospatzeko. Horrela, herriko haur, gazte eta helduek musika bandak eskeiniko duen kontzertua entzuten duten bitartean, paella gozoa dastatzeko aukera izango dute. Plater arroz bakoitzeko ehun pezeta inguru ordainduko dira.



Azpirotz.

Hartutako Inmuno Eskasiaren Sindromeak (HIES) gaurdaino eragin gutxi izan du beste arrisku faktorerik gabeko prostituten artean. Hori da behintzat COFES eta Andraizeko adituek Iruñerrian diharduten 71 prostituta aztertuta gero ateraduten ondorioa. Aztertutako emakumeetatik hiruk bakarrik eman dute emaitza positiboa HIESaren birusaren frogan eta hirurak drogazaleak ziren. Datu hauek, inor lasaitu beharrean, bezeroen ardura astinduko dutela espero du Koro Ormaetxea ikertzaileak. Honen esanetan, «prostituta ez-drogazaleak uste genuena baino 'garbiago' daude, baina honek ez du esan nahi arriskua uxatu dugunik, baizik eta oraindik talde hau babesteko garaiz gaudela». Arlo honetan dabilzanek ez dakite, ordea, sekula gizonezkoak hezitzeko garaiz ibiliko ote diren, gehienek oraindik muzin egiten bait diote preserbagailuari.

ANA UNANUE / IRUNEA

Aipatu ikerketa Carlos III Osasun Zentruaren gomendioz hasi zuten Koro Ormaetxea, Asun Roldan, Mari Kruz Landa, Paz Ausejo, Julia Munarriz eta Teresa Salasek. Ormaetxeak ohartarazi duenez, kontuz ibili behar da emaitzekin, 71 prostituta bakarrik aztertu dituztelako —nahiz eta berrehundik gora deitu— eta, gainera, aztertutakoak ez direlako egoera txarrean daudenak. Normalean drogazaleak izaten dira hiesak jota daudenak; horiek, gutxienak Iruñean, lantoki bihurtu dute Gaztelu plaza.

Aztertutako 71 emakumeen artean, berriz, % 13ek bakarrik kontsumitzen dute heroina eta % 86ek klubetan edo barretan egiten dute lan. Hiesaren birusaren frogan, positibo eman zuten hirurek heroina hartzen dute maiztasunez. Horrek adierazten du, Ormaetxearen esanetan, «hiesak oraingoz ez dituela pros-


Prostitutak HIESean

tituta ez-drogazaleak ukitu».

Hiesak heterosexualean artean ere berea egiten zuela ikustean, prostitutak birusa hedatzeko arrisku handia zutela pentsatu zen. COFES eta Andraizeko adituen ikerketak erakusten du, ordea, prostitutak ez daudela uste bezain kutsatuak. «Baina, arren, inor ez dadila hori entzutean lasaitu —azpimarratu du Ormaetxeak—. Horrek esan nahi du, soil soilik, behingoz gaitza prebenitzeko garaiz gabiltzala».

Prebentzio lana ez da makala giro honetan. Hasteko, prostituten defentsa gutxiago dituzte hiesaren aurrean. Azken bost urtetan sexu harremanen bidez transmititzen den gaitzen bat izan dutenek hies harrapatzeko arrisku gehiago dute. Eta, ikerketak erakusten duenez, prostituten % 45ek pairatu izan dute horietako gaitzen bat. Defentsarik eza eta sexu harremanen maiztasuna —eguneko harreman batetik harraraino— kontutan hartuta, prebentzioak gutxi izango dira.

Hala ere, preserbagailurik ez erabiltzeak dakar arriskurik larriena. Gloria Lockett prostituta estatubatuarra kontatzen duenez, bezeroek preserbagailurik nahi ez dutenean, zera esaten die: «Gozamena zuretzat da, kondoa zure emaztearentzat, bale?», eta gizonek kasu egiten omen dute. Hemen berriz horrelako argudioek ere ez dute balio. Prostituten % 16ek bakarrik erabiltzen dute preserbagailua «beti»; % 13ek «noizbehinka» eta % 2ek «inoiz ez». Gainontzekoek ez dute erantzuten, lotsagatik ziurrenik, erantzuna ezezkoa izango litzatekeelako. Arazoa ez da informazio falta, gizonezkoen axolagabekeria baizik. Ormaetxeak dioenez, «prostituta gehienek preserbagailua erabiltzea nahi izaten dute. Ez hiesagatik bakarrik, beste mila gaitz daude. Baina bezeroek uko egiten diotenez, prostituten ez dute beste aukerarik. «'Kondoiarekin ala deus' esanez gero, tipoa alboko neskarena joango da eta akabo».



Kanpotik eta denbora gutxirako

A.U. / IRUNEA

Nafarroan diharduten prostituta gehienak atzeritarrak dira eta urtebete baino gutxiago darimate hemen. Ikerketak erakusten duenez, % 44ak Hegoameriketatik etorri dira; % 12ak Portugalitik; % 5,6ak Frantziatik; % 1,4ak Angolatik eta gainontzekoak Euskal Herri bertakoak edo Espainiakoak dira.

% 6ak Iruñekoak dira, baina % 61ek urtebete ere ez dute egin hemen. Eta ziur aski ez dute askoz ere gehiago egingo, lekuz aldatzen bait dituzte berehala. Atzeritarrak izatean, gehienak legez kanpo daude eta ezin dute osasun zerbitzu publikoak baliatu.

Bataz besteko adina 29 urtekoa da. Aurreneko sexu harremana 15-16 urtekin izan zuten gehienek, baina prostituzioan beranduago hasi ziren, 23-24 urtekin. Lanbide hau behartuta ala


beren kabuz aukeratu zuten jakiterik ez dago. Drogazaleen kasuan argi dago drogaren menpekotasunak bultzatu zituela —normalean drogazaleak bihurtzen dira prostituta eta ez alderantziz—, baina besteek ez dute garbi azaltzen zerk bultzatu zituen.

Prostituten laurdenak zerbitzu bakarra eskaintzan du gaueko.

Lekuz aldatzen dituzte berehala, eta urtebete baino ez ohi dute ematen hemen. Atzeritarrak izanik, gehienak legez kanpo daude eta ez dute osasun zerbitzu publikoak erabiltzeko aukerarik.

Erdiak baino gehiago bitik bostera bitartean ibiltzen da eta gutxienak hortik gora. Bataz beste 10.000-15.000 pezeta irabazten dute lan eguneko eta 5.000-10.000 pezeta eskuratzen dutenak ere dezente dira. 25.000tik gora dabilzanak 'luxuzkoak' dira. Kalekoek berriz askoz ere gutxiago ateratzen dute.

Prostitutak, oro har, ez daude inguruan integratuta. Gehienetan bezeroak izaten dira euren lagun bakarrak eta horrek, Ormaetxeak azpimarratzen duenez, «zailago egiten du prebentzio lana. Aurreneko harremanetan agian preserbagailua erabiltzen dute, baina gero, 'beno, konfidantzazkoa da, nire laguna da' esaten dute eta arriskuak ahazten dituzte. Izugarrizko afektibitate falta dute, eta ez dute ikusten bere lagun horrek, berak bezala, agian beste hamaika lagun dituela eta katea amaigabea dela».



CALIDAD RQT

A.U. / IRUNEA



Prostituta bat bezero batekin tratuan.

EL PAIS

Emagaltzaileak

mesen esanetan, prostituzioaren aurkako jarrerak «emakumearen burujabetasunaren kontrakoak dira. Ikusi bestela zer gertatzen den pornografiarekin. Leku gehienetan legeztatuta eta onartuta dago, noski, pornografiaren munduan gizonetakoak direlako emakumearen sexua esplotatzen dutenak. Gure sexua geuk esplotatzea erabakitzen dugunean, berriz, gaitzetsi egiten dute».

Kongresuetan agertzen diren prostitutak ez dira, ordea, gehien goaren adierazgarri. Bruselan azaldu zirenak harro zeuden, «bizimodu hau aukeratu dugu eta libre gara». Nafarroan egin den

ikerketako prostituta gehienei, aldiz, gogorra egiten zitzairen beren lanbidea argitara azaltzea. Gizarteak erakusten duen mesprezua barneratu egiten dute eta askok benetako eskizofrenia bizi dute: «errespetagarriak» egunez, «emagaltzaileak» gauez.

«Ongi egon daikete zeuk aukeratzeko baduzu». Baina aukeratzetik ba al dago? Hirugarren Mundua delakoan ez behintzat, eta ustez Lehena den honetan ere nekez. Hemen noizbehinka gogoratzen ditugu prostitutak: hiesak ez dituela kutsatu eta oraingoz populazioarentzat arriskuetsuegiak ez direla esateko, noski.

Prostitutak ezin dute bizkarretik kendu gizarteak ezarri dien estigma. Euskarak ere ez du errukirik izan horiekin: izena eta izana bat balira, diruaren truke sexua eskaintzen duten emakumeak galduta leudeke betirako, emagaltzaileak dira, azalean sufritu bait dute gizarte honen moral bikoitza eta morboa.

Prostitutak beren bigarren Kongresua Bruselako Legebiltzarrean ospatu zuten 1986 urtean. Parlamentari kontserbadoreenak, prostitutak euren jazarlekuak hartuko zituztela jakitean, Kongresua oztopatzen saiatu ziren. Prostitutak ez ziren isilik gelditu ordea. Zenbait politikariren aurpegiak ezagunak egin zitzaizkien eta hatzarekin seinalatu zituzten: «Ohean nahi gaituzte, baina ez Europako Legebiltzarreko pasiloetan».

Dena dela, boikota ez zen kontserbadoreen kontua bakarrik izan. Feminista talde asko ere Kongresuaren kontra azaldu zen. Eztabaida ez zen berria: zer behar dute prostitutak, euren lanbidearen normalizazioa ala hori desagertzea? Prostituten bozeramaleek ziotenez, «prostituzioa ongi egon daiteke zeuk aukeratzeko baduzu». Zenbait feministen iritziz, berriz, ezin da prostituzioa instituzionalizatu, «emakumearen esplotazioa onartzea litzateke eta».

Margo St. James estatubatuarra, aitzindari prostituten eskubideen defentsan, gogor erantzun zuen: «Zenbait feministek ez dute sekula ulertuko prostituten eskubideak defendatzerakoan emakumeen askapena bultzatzen dugula. Edozein lanek zure gorpuzaren zati bat saltzea suposatzen du: bizkarra, zerebroa, besoak sal ditzakezu. Nik nahi nuen zatia saltzea erabaki nuen eta magina aukeratu nuen, neuk jarritako prezioan gainera». Era berean, prostituzioaren aurka azaltzen direnen «hipokresia» salatu zuen: «Gure ongizateaz arduratzen direla diote, baina behin ere ez dute onartuko agintariak eta Polizia direla gure arazorik handiena, horiek direla isunekin, atxiloketekin eta abarrekin izorratzen gaituztenak». St. Ja-

Kontserbatzaileek ezezik, feminista askok prostituten Kongresua boikoteatu nahi izan zuten. Polemika atzetik dator: zer behar dute prostitutak, euren lana normalizatzea ala desagertzea?

Edozein lanbidek zure gorpuzaren zati bat saltzea suposatzen du. Bizkarra, zerebroa, besoak sal ditzakezu. Nik nahi nuen zatia saltzea erabaki eta magina aukeratu nuen, neuk jarritako prezioan gainera» Margo St. James.

mintzoak

UEU

● Zaila da pare bat orrialde-tan ezer tajuzkorik esan UEU bezalako errealitate baten gainean, are eta zailago sakoneko arazoaz edo planteamenduaz ihardutea balitz helburua. Oraindik ere areago UEU urtean behin kuxkuxeatzera joan ohi delako baizik ezagutzen ez duenarentzat, eta zer esanik ez delako horrek ez badu oso eritzi ona edozein unibertsitateari —erdal zein euskal— buruz, Unibertsitate-Erakundea instituzio, nolabait esan, susmagarria bazaio. Delako horrek hobe luke ixil-ixilik, ez bait du zer esan handirik, eta aurreritzez beteta bait dago, goian aitortu denez; eta zerbait esaten hasi ezkerok hobe du abiapuntua zein den argi azaltzea, hemendik aurrerakoa irakurtzeko lana hartzen duenak jakin dezan zer espero dezakeen: inportantzia gutxiko aspektuei buruzko gogoeta desbideratua, anekdotikoa nahi bada.

Izan ere, anekdota bat bait dago artikulua honen oinarrian; aurtengo buelta ematen ari nintzela erori zen nire eskuetara Iruñeko plano bat, euskaratua, jakina. Planotxoak erderazko 'Cuesta de Larraina' —Larreina dio hemen hainbatek— 'Erreginaren aldapa' bihurtzen zuen. Hain izan zen handia horrek eman zidan tripako mina non aldamenetik pasatzen ari zen prakamotz ugarietatik edozein lepotik hartzeko gogo bizia etorri bait zitzaidan. Non eta UEUn. Hogeit urte fenomeno interbokalikoak aztertzen eta gero hau. Madarikatu nituen bizkaitarrak oro, Nafarroa astebururako birikatzen daukatena eta ez hogei urtetan, ez berrehunetan hemengo berri ikasteko gauza izango ez direnak, madarikatu nituen Matematika sailean Euskadi = Bilbo ekuazioa baizik ikasi ez duten bilbotarrak, madarikatu nituen txanotxoaren azpian amonaren baserriaren izena baino gordetzen ez duten giputzak, madarikatu ere ezertaz enteratzen ez diren arabarrak.

Gero, kasketaldia pasatu zitzaidanean, lasaiago pentsatzeari ekin nion; lehenengo eta behin, planoaren egilea zein den ez dakidala aitortu beharra daukat. Beraz,

ez dakit nori egotzi behar zaion erantzunkizuna. Kontua ez dela hain grabe ere aitortzeko prest nago. Baina anekdotatik harantzago zerbait badago, UEUrentzat berarentzat erabakiorra edo funtsezkoa ez dena, iruñearrentzat ez den bezalaxe, baina bata zein besteak nolabait uztartzen dituen: hamasei urte dira UEU Larraonan aritzen dela, eta hori ez da anekdotikoa; zer eragin du denbora guzti horretan UEUk Iruñean? Zer Iruñeak UEUn? Bi galderen erantzuna berbera da, nire ustez: ezer gutxi.

Edonola ere eragin edo eragin faltaren fenomeno aldebikoa da; gure aldetik fe-



txak daude: UEUren hasierak ahotsa errekeratzen harrapatzen gaitu, Sanferminak pasa berrian eta Garesko, Elizondoko edo beste nonbaiteko festeei begira. Gero ez dira asko izango gure artean, agian, euskaraz eta unibertsitate mailako gaiak jorratzeko gauza izango direnak, eta haietatik auskalo zenbat dagoen lanerako prest; gutxi, alperrak eta ez-jakinak, gu. Hori gutxi balitz instituzioen epelkeria aipatu beharko litzateke seguruaski, Zabaleta, Aleman etabarraren harrera eta diskurtsoez aparte. Besteen aldetik, topiko zaharrez kutsatutako begiratzeko modua gainditu ezina, arrazoi demografiko eta politikoen pisu itzelak ematen duen autosufizientzia, txikikeriatan gelditu ezin daitekeen premiazko kalitatara iritsi beharra, besteak beste.

Beharbada arazoa da arazorik ez dagoela, hau da, ezin zaiola ez UEU eta ez Iruñeari bakoitzak ematen duena baino gehiago ematea eskatu, eta onartu beharra daudela harremanak bere horretan; hau da, Iruñeak toki eroso eta ikasle batzu ezartzearekin bete duela bere eginbeharra eta UEUk berea goimailako gaiak euskaraz landuz. Eta horrek berak tinkoagotzen nau unibertsitateari —erdal zein euskal— buruz dauzkadan uste txarretan.

Gazteendako Zokoa

Zozo arrunta
Turdus merula
Beltza goitik behera
Nafarroan oso arrunta
Joan den mendean
urria



Basoen lagun


Europako txori arruntenetakoa dugu zozoa, ia hiri guztietan aurki bait daiteke, parkeetan, jardinetan, leihoetan eta baita semaforoetan ere. Azpimarratzekoa da espezie honek azken mende honetan izan duen eboluzioa eta lortu duen ingurunerako moldaera duela mende t'erdiko biologoek oso urria eta leku bakantetan zegoela adierazten bait zuten.

Arra beltza da, goitik behera, eta mokoa eta begien ertzeak horiak ditu. Emea marroia da, eta gazteak, uda amaierara arte, ñabarrak.

Bere kantua oso grabea da, estrofa bakar batekoa, eta arrak beti gailurretatik kantatzen du: zuhaitza, antena, etxe punta bat. Lurrean jaten du, han biltzen bait ditu, saltoka, gogokoak dituen insekto, zizare, har eta fruituak.

Europa osoan bizi da, Islandian izan ezik, eta soilik iparrekialdeko populazioek egiten dute migrazioa. Nafarroan, basoa izanez gero, toki ia guztietan aurkitzen dugu, baita 1.600 metroko alturretan ere.

Hala ere, urriagoa da hegoaldean, ez bait du gustukoegi saskiak eta zuhaixkak, hau da, zuhaitzak topatzen ez dituen tokiak.



Bermeo-Ciudad del Cabo 1989 (II)

XABIER DE MIGUEL

Jon Kepari oso ondo zihoakion sukaldean, behintzat garbitzen baino hobeto. Bere lana, janaria zatitu, berotu, sukaldea txukundu, eta horrelako gauzak egitea zen. Batzutan, bakarrik gelditzen zenean, hozkailua ireki eta nahi zuena hartzen zuten. Sukaldean denbora oso laister pasatzen zela iruditzen zitzaion, eta horrela, Ciudad del Cabora ailegatu ziren. Egun librea zeukaten, eta nola ez, Aitor eta Jon Kepa batera joan ziren. Ez zen egun ona han gelditzeko, Apartheid—en aurkako manifestaldi bat bait zegoen. Bi lagunek leku paketsu bat aurkitu nahi zuten, baina oso zaila zen, oso egun gogorra bait zen. Paseatzen ari ziren poliziako koitxeen txirrira entzun zutenean. Korrika egin zuten, inoiz baino gehiago, eta nahi gabe manifestaldian sartu ziren. Polizia ailegatu zenean, beti bezala, kupidarrik gabe tiroka hasi zen. Biak korrika hasi ziren berriro, baina poliziaren bi bala Aitorren gorputzean sartu ziren. Jon Kepa bueltatu zen eta han ikusi zuen Aitorren gorpua, jendeak, korrika egitean, zapaltzen zuten bitartean. Jon Kepa laguntzera joan zen, baina bapatean zerbait buruan somatu zuen eta dena beltza ikusi zuen.

—Esnatu bezain laister, garraxika hasi zen, gartzela batean zegoen eta. Esaten zuen gauza bakarra 'atera nazazue hemendik! Nik ez dut ezer egin!' zen. Holako batean zaindari batek erantzun zion:

—A bai, eh? Hori oso entzuna dut. Gainera, badakizu apartheid-en aurkako manifestaldian egotea delitu bat dela. Beraz, ixilik edo 'kalmante' batzuk emango dizkizut.


—Baina ni nahi gabe sartu nintzen hara. 'Txirimiri' itsasontzitik nentorren nere laguna Aitorrekin, bapatean manifestaldian sartu ginenean. Gero... —eta negarrez hasi zen.

Bitartean untzian kapitaina eta Aitorren aita oso urduri zeuden.

Ciudad del Caboko poliziarri deitu zioten, eta Aitorren eta Jonen berri eman zieten. Aitorren aitak konortea galdu zuen. Kapitainak arren eskatu zien libre utzteko, eta bizilekua emateko. Poliziak onartu zuen eta libre utzi. Baina poliziak bazekien Jon Kepak edonori kontatuko ziola emandako tratu txarrak, eta Jon Kepa kaletik zihoanean, polizia batek hil zuen, jende ugariaren aurrean. Hori ikustea nahiko arrunta zen eta inor ez zen gehiegi harritu, beraz gauzak horrela gelditu ziren.

EPILOGOA Kanpora apartheid!

Beltzek ez zuten eskuñiderik hori bai zela txarrena baina egun oso on batian bukatu egin zen pena jendea nazkatzen hasia zen eta aldatu egin zen dena gaur Hegoafrika da libre ta denek daukate kemena



BASAJAUN

Uda gurekin dago. Eguzkiak gogor berotuko ditu gure Euskal Herriko herrialde gehienak, eta guk oporrak hartuko ditugu, noski. Horrek ez du esan nahi, ordea, hartu beharreko neurriak ahaztu edo hartu behar ez ditugunik.

Mendia zure tokirik maitagarriena bada, badakizu zer egin behar duzun: txukun-txukun gorde eta kontuz ibili, suteak nahiko erraz agertzen bait dira. Zigarrotxoren bat botatzen baduzu suak edozer gauza har dezake. Botilaren bat apurtzen baldin bada ere arreta handiz ibili behar da puska guztiak jasotzen, lupa baten lana egin bait dezake hostoen artean. Eta hauek erretzen badira... Buff!! Kontuz!!

Hondartzara joaten bazara, egin ezazu egin behar duzuna. Nahiko zikinak daude hondartzak eta ezin da, inondik inora, egoera hau larriagotu, ez horixe!

Hirian gelditzen bazara, argi dago: ondo jan —fruta, entsaladak eta abar—, ur asko edan —ura, ez beste edozer—, igeri egin, oso ona bait da gorputzarentzako, eta ibili, asko ibili. Iruñera igo eta zeharkatu, edota mugitu zaitez Bilbo, Donostia edota beste herrialdeetako hiriburuetara, eta beti oinez edo txirringulaz. Zure gorputzak mezezi bait du pixka bat zaintzea.

Beste alternatiba asko daude oporretan aritzeko: trekking, senderismoa, ibilbide turistikoak... Aukera oso handia dago eta edozein herritan badaude mota honetako bidaiak antolatzen dituztenak.

Beti bezala, azken finean zurea da aukera, baina ateraldi osasuntsuak eta ekologikoak erabaki: tren, txirringulaz, oinez... Hori bai, uda ondo pasa!

KAZKARROAN


Jenero Xumekoak

□ Rapid motosegadorak sorturiko poza

Sega zorrotzen ari zen txinguruaren aurka kax-kax joz, aitak esan ziolarik 'hi haiz gerrara joan ez den gazte bakarra'. Ez zen inor ohartu gerrara joana zela, eta betiko galdu zen Petreneko Santos. Rapid motosegadoreak herrira ailegatu zirenean, bere ama biziki poztu egin zen. sega mailuaren kaxkek gogorazten bait zizkieten bere seme zenaren hil kanpaiak.

JEREMIAS ERRO

HITZ GURUTZATUAK



EZKER-ESKUI: 1.- Gabarrak. Eduki. 2.- Besoaren atala. 3.- Hamar bider hamar. Joan zaitez. 4.- Bizkaiko ibaia. Gaija, gauza. 5.- Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. Garai. Tona. 6.- Pasa, iragan. Jatorri atzikiak. 7.- Bizkaieraz, hiri. Kontuz! 8.- Autonomi lurralde baten araudia. 9.- Garrik. Metale mota.

GOTTIK-BEHERA: 1.- Kainen anaia. Izuri, ospa. 2.- Izeba-osaben seme edo alaba. 3.- Bizkaieraz, sasia. Arto, hitz elkarretan. 4.- Erronkariaraz, han. Pluralean, musika konposizio mota. 5.- Kontsonantea. Zoro. Kontsonantea. 6.- Joan den urteko. Alderantziz, zaren horrek. 7.- Arrazoia. Eskaini eta ez eman. 8.- Elkartasun. 9.- Erroten uren ibilgua. Alderantziz eta erronkariaraz, hau.

Zaharrak berri

Ur zirristek erakusten dute iturria; hitz onak gizon argia. Ez dago ongi hitz egitea bezalakorik gizona ezagutzeko.

Larraun


Kaldo-maldo eta zuku-salda. Deus ere balio ez duena.

Ultzama

—Zer ari haiz ematen katuari?
—Alpistea.
—Bainan ez al nian esan alpistea kanarioarendako zela?
—Bainan katuauren sabelean dago.

Bizi Bizian

Berrogei urte betetzen ditu aurten Elizondoko abesbatzak. Urteurren ezkutua ia, Iruñeko Orfeoienak ekitaldi eta omenaldi ofizial gehienak bereganatzeaz gain, abesbatzak ere galdu egin duelako lehengo maila eta edertasun hura. Hala ere, urtea behar bezala ospatzeko, abesbatzaren historiari begirada ematen dion 'El silencio electrico' ('Isiltasun elektrikoa') izeneko liburua aurkeztu berri du Carmen Garcia Romero kazetari bilbotarrak.



Elizondoko abesbatza

FELIX MENA

'Abesbatza buhamea'

A.B. / IRUÑEA

Carmen Garcia Romerok adierazten duenez, liburua egiterakoan abesbatzarekin lotura berezia lortu du. «Jende honekin objetiboa izan daiteke, baina ez, inondik inora, aseptikoa».

Bilbotarra bera, baztandartzat hartzen dute bertakoek, Xabi Landa argazkilari iruritararekin ezkondu ondoren. Aurretik Baztani buruz zenbait lantxo apailatuta, liburua osatzeko ehundik gora elkarrizketa egin ditu kazetariak.

Bere hitzetan, Elizondoko abesbatza, 'abesbatza buhamea' da. «Abeslari batzuek utzi izan dituzte abesbatza 'garrantzitsuegoak' hemen kantatzeko, eta askotan ekitaldi ofizialetatik kanpo aritu dira. Abestearena, ezer baino, ezeren gainetik, barruan duten beharra da».

Eta abesbatzaren barruan, denek azpimarratzen dute Juan Eraso zuzendariaren funtsezko eginkizuna. Carmen Garciak azaltzen duenez, «Eraso gaizki baldin badabil, abesbatza ere gaizki ibiliko da. Intuzio izugarria dauka, ezagupenak baino, eta bere belarria apartekoa da».

Urtebetetze ezkutua

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Elizondoko abesbatzak duela hogei hamar urte jo zuen maila gorena, 1952an Llangolleneko (Gales) jaialdian sari nagusia irabazi ondoren. Jaialdi hau munduko garrantzitsuenetakoa da bere arloan, eta Elizondokoa da sari nagusia lortu duen euskal talde bakarra.

Honek zabaldu zizkion beste jaialdi eta gonbite askoren atea, eta hurrengo urteetan Frantzia, Italia, Belgika eta Hego Afrikan aritu ziren kantari. Ondoren eto-

rri ziren beste urte motelagoak, eta horretan ere zer esan handia izan du Juan Eraso zuzendariak izandako gaixotasunak. Orain bere berrogeitamargarren urtebetetzea ospatu arte, Iruñean dagoen abesbatza handiaren itzalean.

Bi talde hauen arteko harreman berezia azaltzen du 'El silencio electrico' ('Isiltasun elektrikoa') liburu argitaratu berriaren egileak, Carmen Garcia Romerok. «Elizondoko abesbatza gezur baten ondorekin jaio zen. 1942an Iruñeko Orfeoien 100.

urtebetetzea ospatzen zen, eta zenbait ekitaldi antolatu zen horretarako. Juan Eraso lagun batzuk elkartu, eta Elizondoko Orfoia osatu zuen, hain zuzen omenaldietan parte hartzeko».

Baina egilearen esanetan, urtebetetze hori ez zen benetakoa, askoz lehenagotik bait zegoen Iruñeko abesbatza. «Nolanahi ere Elizondoko Orfoiak aurrera egin zuen, eta 1948an Elizondoko Abesbatza bihurtu zen». Hor-tik aurrera beti izan zen bi abesbatzen arteko 'lehia' berezia, Eraso zuen aiurri zailak lagun-duta.

«Iruñeak beti mesfidantzaz ikusi du Nafarroan gertatu den guztia —dio Garcia Romerok—, eta Elizondoko abesbatza honekin ere halaxe gertatu da. Aurten berrogeitamargarren urteurrena ospatzen du, eta Iruñean Orfoiak ere ehungarrena ospatzen duenez, hemengoa ia ezkutuan ari da gertatzen».

Liburuaren erredakzioa abesbatzak berak agindu zion, eta ageri diren argazkiak Xabi Landa argazkilariak aukeratutakoak dira, zaleuek ateratakoen artean. Liburu egiteko dirulaguntzak, Baztanen egiten diren beste hainbeste gauza bezalaxe, herrietatik atera dira neurri handian, laguntza ofizialak gorabehera.

Egileak, hamaika ataletan, Berekoetxea aitaren kapillaren garaitik ibilitako bidea azaltzen du, egun abesbatzak duen egitura zehaztu arte, baina ukitu poetikoen bidez: datu eta gertakari hutsi erreparatu baino, 'liburu korral' bat eginez.



● Juan Berekoetxea aitaren lehendabiziko musika taldea, 1895an ateratako argazkian. Hemen izanen zuen Juan Eraso, berrogei urte geroago, musikarekin lehendabiziko harremana.

KULTUR ZIKLOA 92 A

BIDEO EMANALDIAK

Uztailaren 24etik irailaren 4era

Indiana Jones zorigaitzoko tenpluan:
Arano eta Leitza

Wilow: Goizueta eta Etxaleku
Kareletik: Leitza

Arrosaren izena:
Leitza, Arribe eta Beruete
Bonnie eta Clyde: Leitza

Azeri grisa: Goizueta
Eurigizona: Areso eta Aldatz

Rio Bravó: Lekunberri
Hamaseigarrenean aidanez:
Oderitz eta Errazkin

Ke arteko egunak: Azkarate



LEITZALDEA, LARRAUN-ARATZ
eta BASABURUA-DMOTZA
EUSKARA ZERBITZUAK



Nafarroako
Gobernua



Koldo Asiron

.....NUPeko Euskara atalburua

Duela hilabete Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskal Saileko buru izendatu zuten Koldo Asiron. Lanean igarotako denbora laburra izan arren, lortutako etekinak kontutan hartzeak di-

ra. Datorren ikasturterako Magisteritza Eskolako euskal lerroa indarrean jarriko da berriro, eta era berean, Unibertsitatean euskararen egoerari buruzko inkesta bat egingo da.

«Nere lana euskararen alde presionatzea da»

AINHOA ARROIABE / IRUNEA

EGUNKARIA.— Nola sortu zen magisteritza eskolako euskal lerroa berriro indarrean jartzeko ideia?

KOLDO ASIRON.— Errektorea, errektoreordea, unibertsitateko arlo guztietako ordezkariak, hau da, ikasleen, irakasleen, eta administrazio eta zerbitzueta langileen ordezkariak eta ni bildu ginen. Euskara unibertsitatean sartzeko iniziatiba batzuk planteatu ziren, eta lehendabizikoetakoa magisteritza eskola berriro martxan jartzea izan zen. Aurreko errektore taldeak, hamabosteko ikasle kopurua ez izateagatik lerroa desegin zuen. Oraingo errektore taldeak, aldiz, ez du gutxiengo horren araua estu-estu hartuko, eta aldeko diskriminazioa, diskriminazio positiboa euskararekiko mantenduko duela ematen du. Hori dela eta, nahiz eta taldea hamabost lagun baino gutxiagokoa izan, antolatuko da magisteritza eskolako lerro hori.

EGUNKARIA.— Magisteritza eskolako euskal lerroarako azpiegitura lortzeko arazorik baduzue?

ASIRON.— Ez, azpiegitura hor dago. Irakasleak Unibertsitateko taldearen barruan daude, baina beste gauza batzuk egiten ari dira orain. Oraintxe bertan klasea eman behar bada, hor daude irakasleak, hor daude apunteak. Azpiegitura, beraz, prest dago. Gainera, irakasleak klaseak emateko irrikitan daude.

EGUNKARIA.— Magisteritza eskolaren arazoa alde batera utzita, euskararen normalizaziorako bidean zeintzu dira NUPn hartu behar diren neurriak?

ASIRON.— Orain, matrikula inprimakiekin batera, galdegai txiki bat dago. Jendea galdetzen zaio euskara dakien ala ez, eta ez

badakite ikasi nahi dutenentz. Inkesta hau egiten da, batez ere bi gauzari begira: unibertsitatean zenbat euskaldun dagoen jakiteko eta horren arabera jokatzeko, gauza gehiago antolatu ahal izateko, eta abar... Adibidez, ikasgai batean hogeitau euskaldun baldin badaude, bi talde egin daitezke: talde bat gaztelaniaz eta beste talde bat euskaraz.

Oraingo errektore taldeak ez ditu aurrekoak zituen arau estuak, eta euskararekiko diskriminazio positiboa egingo duela ematen du. Horrela antolatuko da magisteritza eskolako lerro hori.

Bestetik, jakin ez baina ikasi nahi duen jendearekin, euskara ikasteko klaseak ere antolatu daitezke, eta zehazki jakin nahi dugu zenbat dauden.

EGUNKARIA.— Etorkizun hurbilari begira, euskal adarrak bere osotasunean egiteko aukerarik badago?

ASIRON.— Zaila ikusten dut hain zabaldua egitea, hau da, euskal lerroan asignatura guztiak euskaraz ematea, zaila ikusten dut. Alde batetik, hemen, Irúñean euskaldun asko ez dago, ikastera ez da etorriko jendea, baina zenbait taldetan gerta daitezke. Gero arazoaren bigarren zatia dator, irakaslegoa. Hau da Nekazal Ingeniaritza Teknikoan gertatzen dena, ikaslegoa badago, orain ikusi beharko da ira-



Koldo Asiron.

OLATZ ARRIETA

kaslegorik badagoen, eta ez balezko kontratatu nahi duten. Dena den, nik uste dut zerbait egingo dela, baina oraindik ezin da ziurtatu.

EGUNKARIA.— Eta euskal irakaskuntza unibertsitariari begira ba al dago plangintza orokor bat?

ASIRON.— Nik uste dut plangintza orokor bat egin beharra dagoela. Hori enkargatu zitzaion Txepetxi, baina arazoak izan ziren eta ez zen egin. Eta zerbait egin behar da, bestela adabakiak jartzen ibiliko gara. Hau da, plangintza orokor bat egin behar da,

beharrak zeintzuk diren eta dagoen eskaintza parekatuz. Ea berriro gauzak konpontzen diren eta enkargatzen zaion Txepetxi edo beste bati horrelako ikerketa orokor bat egitea, eta orduan, horren arabera jokatzeko. Baina oraingo plangintzarik ez dagoenez, etorkizunari begira hiru ardatz hauek ditugu. Batetik, magisteritza eskola, bestetik, euskara ikasteko klaseak, eta hirugarrenez itzulpenegintza. Hau da, errotulazioa, informazio batzuk, administrazio paperak eta abar euskaratzea.

EGUNKARIA.— Errektorea eta orokorrean Nafarroako Unibertsitate Publikoko agintarien jarrera euskararen normalizaziorrekiko jarrera nolakoa izan da?

ASIRON.— Nik egia esan oztopo asko ez dut izan orain arte. Nik uste dut nere lana euskararen alde presionatzea dela: behin ezet esaten badizute hurrengoan berriro itzuli beste bide batetik, es-

Plangintza orokor bat egin beharra dago, beharrak zein diren jakiteko eta eskaintzarekin parekatu ahal izateko. Plangintza hau egiten ez badugu, beti adabakiak jartzen ibiliko gara.

katu duzuna lortu arte. Nik, egia esan, oztopo asko ez dut aurkitu. Batzuetan diru kontua aipatu ditate, adibidez Administrazio eta Zerbitzueta langileentzako (PAS) liberazioetan, euskara ikasteko liberazioetan. Hau da, nolabaiteko maila duten bi edo hiru lagun hartu eta liberatu urtebetez, euskara ikasteko. Erantzuna izan zen aurten ez dela egingo, hurrengo urtean diru gehiago egongo dela eta agian egingo dela. Hori izan da ukatu didaten bakarra.

Gero, gainontzeko eskarietan, adibidez, eskatzen badituzu sei irakasle, lau ematen dizkizute. Baina borondatearen aldetik, euskararen munduan ezin da esan deus ondo dagoenik, baina ez dago borondate txarra.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

